

Maria Asuncion Plazaola Baztarrika

*Azkoitia,
Gipuzkoa
(1917-2014)*

Aurkibidea

Biografia



Iruñean jaio eta 6 urterekin etorri zen Azkoitira bizitzera. Aita Urretxuko Beain baserrikoa zuen eta ama, berriz, Elosu auzoko Androndegi baserrikoa. 6 anai-arreba zituen. Eskolan Miserikordian mojetan eta plazan ibili zen 13 urtera arte. 15 urterekin Azkoitiko "Epelde y Larrañaga" lantegian hasi zen lanean, zakuak egiteko mazurka betetzen. Azkoitiko jostun batekin ezkondu eta seme bat izan zuen.

Zintak

AZK-030

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-05-15
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. Iruñean jaio eta Azkoitira bizitzera

- **Erref:** AZK-030/001
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>1917an jaio zen Iruñean. Ama Androndegi baserrikoa, Elosukoa eta ama Urretxuko Beain baserrikoak zituen. Gurasoak Iruñetik Azkoitira joatearen nondik norakoa eta anai-arreben aipamena egin eta izendatu egiten ditu.</p>

2. Aitak bertan lana aurkitu eta Azkoitira bizitzera

- **Erref:** AZK-030/002
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Sei urtera arte Iruñean bizi izan zen. Aita Azkoitian lanean hasi zen eta Azkoitian jarri ziren bizitzen.</p>

3. Eskolara mixerikordiara eta plaza berrira

- **Erref:** AZK-030/003
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:04:33. **Bukatu:** 00:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolara mojetara mixerikordiara eta ondoren plaza berriko eskolara hasi zen. 13 urtera arte ibili zen eskolan. Aritmetika, gramatika, historia... denetik ikasten zuten. Erdaraz ikasten zuten, baina Manuela Iruñean jaiotakoa zenez, ondo moldatzen zen.

4. Azkoitian nagusiaren etxean errentan

- **Erref:** AZK-030/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Azkoitiko Errebal kalera joan ziren bizitzera eta etxearen deskribapena eta kokapena aipatzen ditu. Lantegiko nagusiarena zen etxea eta Manuela eta sendikoak bezala langile gehiago bizi ziren eraikin hartan, denak errentan.

5. Jaunartzea sei urterekin egin zuen Azkoitian

- **Erref:** AZK-030/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:09:46. **Bukatu:** 00:11:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Iruñean dotrina erdaraz ikasten hasi zen eta Azkoitian euskaraz ikastera pasa zen. Jaunartzea sei urterekin egin zuen Azkoitian. Behar baino lehenago egin zuen jaunartzea, nahikoa dotrina zekiela eta.</p>

6. Erditu ostean elizatik pasa gabe ezin kalera atera

- **Erref:** AZK-030/009
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Haurra izandako emakumeek zeremonia bat egin behar izaten zuten elizan, hori egin ezean ez zuten etxetik ateratzerik. Manuelaren amak ezin zion jaunartzera lagundu aurretik aipatutako zeremonia hori egin behar zuelako lehenbizi.</p>

7. Umetako jolasak

- **Erref:** AZK-030/010
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:13:46. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: tortolasetan, orratzekin, etab. Iruñean ikasitako kantuak kantatzen zituzten jolasetan erdaraz eta Azkoitiko umeek harrituta begiratzen zieten.

8. Mariatarren kongregazioko maistra

- **Erref:** AZK-030/011
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Elizara igandero joaten ziren gurasoekin, oso elizkoiak ziren. Mariatarren kongregazioko maistra izan zen, eta ezin izaten zuen helduan dantzarik egin Azkoitiko partean.</p>

9. 20 urtez Intsausti lantegian lanean

- **Erref:** AZK-030/012
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:19:09. **Bukatu:** 00:20:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

15 urterekin hasita 20 urtez Intsausti lantegian aritu zen lanean. Mazurka betetzen aritzen zen eta hura nola izaten zen azaltzen du

10. Lantegian enkargatu kargua

- **Erref:** AZK-030/015
- **Iraupena:** 0:00:09. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:24:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Manuela enkargatu modura egon zen lantegian ezkondu bitartean, ez zuen makinarik probatu. Azterketa bat egin zieten kargu hura hartzeko. Lantegiko kontuak kontatzen ditu.

11. Josten ikasten

- **Erref:** AZK-030/018
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:28:06. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Josten ikasten partikular eskolaz kanpo neska batzuekin aritu zen eta ezkondu ondoren mojekin. Josten egiten zituzten lanak aipatzen ditu.

12. Azkoitira tropak sartu zirenekoa

- **Erref:** AZK-030/021
- **Iraupena:** 0:05:22. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:38:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Hemeretzi urte zituela sartu ziren tropak Azkoitian; ordurako, anaia gerrara joanda zegoen. Aitaren inguruko anekdota bat kontatzen du. Abertzalea zelako lanetik bidali zuten denbora batez.

13. Gerra denbora Azkoitian

- **Erref:** AZK-030/023
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:41:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra-denboran, herritik jende ugari egin behar izan zuen alde, baina Asuncion eta etxekoak karlista bati esker geratu ziren. Orduko kontuak aipatzen ditu.

14. Azkoitiar jostun batekin ezkondu zen

- **Erref:** AZK-030/024
- **Iraupena:** 0:05:56. **Hasi:** 00:41:25. **Bukatu:** 00:47:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Gerra ondoren lanean jarraitu zuen eta handik gutxira azkoitiar jostun batekin ezkondu zen. Gizonaren inguruko kontuak eta ezkontza egunekoak kontatzen ditu. Ahizpa bat Bartzelonan zuen eta harengana joan zen ezkonbidaian. Ahizparen inguruko kontuak.</p>

15. Bizikletaz nagusiari lantegiko kartak eramatera

- **Erref:** AZK-030/025

- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:47:21. **Bukatu:** 00:48:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Bizikletan ikasi zueneko kontuak kontatzen ditu. Lantegiko kartak nagusiari eramaten zizkion bizikletaz correosetik.

16. Erromerietara inguruko auzoetara

- **Erref:** AZK-030/026
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:48:05. **Bukatu:** 00:51:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeriara Madarixa, Martite eta Elosu auzoetara joaten ziren, besteak beste. Madarixan dantza lotua libre zegoen, baina Asuncionek kongregazioko maistra izanik ez zuen dantzarik egiten. Erromeria garaiz bukatzen zen. Loiola aldera pasioan joan eta lagunartean egoten ziren kontu-kontari. Frontoia egin zenean inguruko herrietatik bertara joaten zen jendea dantzara. Zinera ez ziren askotan joaten garestia baitzen.

17. Azkoitiko prozesioak

- **Erref:** AZK-030/028
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:52:36. **Bukatu:** 00:55:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Azkoitiko prozesioak eta bezperak aipatzen ditu. Madarixa auzoraino joaten ziren prozesioan eta hilerrira kalbarioak egiten ziren. Kale bakoitzak bere santua izaten zuen.

18. Aitaren bizipenak gerratean

- **Erref:** AZK-030/030
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:56:12. **Bukatu:** 00:59:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitaren inguruko gerra-denborako kontuak kontatzen ditu.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com